

## 2025eko martxoaren 8ko eguna Baiona Hiria emazteen eta gizonen arteko Berdintasunaren alde konprometitzen da

**Baiona Hiriak urte anitz daramatza genero diskriminazioaren aurkako borrokoan, eta emazte-gizon berdintasunaren aldeko foro bat sortu du. Emazteen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko programazio abertsaren osagarri gisa, Aniztasunaren Astearen kariatara antolatua, Euskal Hirigune Elkargoko Emazteen eta Gizonen Berdintasuna (mota honetako instantzia bakarra Frantzia) Elkartearen kanpoko Batzordeak, emazteen eskubideen egunaren kariatara, eraman den kanpaina sostengatzen du. Martxoaren 10ean, Baiona Hiriak «Olympe de Gouges» sortu berri plaza-baratzea inauguratuko du (Resto-U parean) eta toponimiak salbuespeneko emazte bati lekua ematen dio, bereziki Emazte eta Herritarren Eskubideen Aitorpenaren egileari.**

Kultura, hezkuntza, gizarte edo kirol politika publiko ezberdinen baitan, Baiona Hiriak berresten du emazteen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko duen borondatea eta engaiamendua, Emazteen eta Gizonen arteko Berdintasun Plana onartuz, barnean eta baionarrekin batera berdintasunezko gizarte bat sustatzeko 50 ekintzekin. «*Era berean, emazteen alde eta emazteen bidez egiten diren ekintzak sustatzea, balioa ematea eta jasotako publiken aniztasunari eta irudikapenen gaiari arreta handiagoa ematea da helburua...*» Emazte-gizon berdintasunaren planaren prestaketa hiriko agente guztientzat eskaintzen den prestakuntza batekin lagundu da, bakoitzak emazteen eta gizonen arteko berdintasun hau, oinarritzko eskubide gisa, sustatu eta errespetatzeko parada izan dezan", azpimarratu du Déborah Loupiens-Suares-ek, emazte/gizon berdintasunaren eta diskriminazioen aurkako borrokan delegatua den auzapez-ordeak. Emazteen eta gizonen arteko berdintasuna deklinatuko da aurten ere programazio aberats batean, bai parte hartzean, bai sormenean. Karia horretara, Baiona Hiriak «Olympe de Gouges» plaza-baratzea inauguratuko du (RU aitzinean), martxoaren 10ean, 11:30ean, emazte engaiatu horren omenez bataiatua, feminismoaren aitzindaria eta Emaztearen Eta Herritarren Eskubideen Adierazpenaren egilea.

### Emazteen eta gizonen arteko berdintasuna, Aniztasunaren Astearen erdigunean

#### **Martxoaren 4tik 7ra > Emazte artista karrikako tekniken inguruko tailerrak**

14:00etatik 16:00etara - Kaxu Galeria –Sainte-Catherine karrika 35. Tailerrek karrika-arte teknikak eta emazte artista karrikako lana ezagutzeko parada emanen dute. 8 urtetik goiti – Izen-emateak: 05 59 03 75 32- [mediation@kaxu.fr](mailto:mediation@kaxu.fr)

#### **Martxoaren 4a asteartea > « Magma Mia ! » ikusgarria**

20:30 – Luna Negra – Augustins karrika 7. Doako euskarazko ikusgarria. Izen-emateak [euskara@bayonne.fr](mailto:euskara@bayonne.fr).

#### **Martxoaren 6a osteguna > « Inclusions-nous ! » idazketa tailerra**

10:00 – Le Bocal – Maubec karrika 34. Eta inklusioa aberastasun sortzailea balitz? Tailer honek hori guztiei frogatzea bilatuko du. Ez da esperientzia berezirik behar hitzordu honetan parte hartzeko. Hitzaren erakargarritasuna nahikoa da! Izen-emateak: 06 76 61 93 25 - [lebocalbayonne@gmail.com](mailto:lebocalbayonne@gmail.com)

#### **Martxoaren 7a ostirala > Lelo feministen idazkera eta serigrafia tailerra**

10:00etatik 12:30era - Le Bocal, Maubec karrika 34. Laurent Platero autoreak eta Claude Billès artista plastikoak animaturik. Izen-emateak - 06 76 61 93 25 - [revueencres@gmail.com](mailto:revueencres@gmail.com)

### **Martxoaren 7a ostirala > «Estitxu» zine-kontzertua**

18:15 – Hiriguneko Mediateka. Baiona Hiriko mediatekak Estitxu dokumentalaren proiektzioa proposatzen du (64'), bere zuzendari Frank Dolosor kazetariaren presentziarekin. Ondotik, Naia Roblesek, kantari ezagunaren ilobak, interpretatutako kantu batzuk eta zuzendariarekiko hartu-emanen dira.

### **Martxoaren 8a larunbata > «Emazteen hitzak» idazketa tailerra**

10:00 - Le Bocal, Maubec karrika 34. Hainbat idatziren bidez, parte-hartzaileek ospetsu eta ezezagun garrantzitsu horiei buruz hausnartuko dute, bizitza batean entzundako emazteen hitz horiei buruz, askapen baten, haustura baten, hobeki bizitzearen iturburuei buruz. Izen-emateak: 06 76 61 93 25- [lebocalbayonne@gmail.com](mailto:lebocalbayonne@gmail.com)

### **Martxoaren 8a larunbata > Tailerra/Webinarra: Emazteen egoera Afganistan-ean: genero apartheid bat?**

10:00 – IFJD-ek (Justizia eta Demokraziarako Institutu Frankofonoa) antolatutakoa. Izen-ematea: [contact@ifjd.org](mailto:contact@ifjd.org)

### **Martxoaren 8a larunbata > Erresistentziako emazteen Historia hitzaldia Baionan**

19:00 Didam-en –Lesseps kaia 6. Baskelles-ek emazte arrunten lau istorio berezi konstatzen dituzte: Coralie Labourdette, kapelagilea, Amelina Devant, okina, Madé Mesplé Lassalle, erakaslea et Marie Cazaux, jostuna.

### **Martxoaren 8a larunbata > «Martxoaren 8a! Bil gaiten!» kontzertua**

19:30 – Errepublikako plaza (eguraldi txarra izanez gero, Gaztetxean). Caroline Dufau eta Lila Frayssen bi ahots bereziak polifonia hipnotiko batean nahasten dira, soka-panderoen, oinen eta eskuen pultsazioak eramana. Bi musikariek Okzitaniako erreperitorio tradizionaletik hartu, artxiboak berriz abian ezarri eta ahazkotasunaren harian kokatzen dituzte.

### **Martxoaren 8a larunbata > RING 100 % FÉMININ inprobisaketak**

20:30 Luna Négra – Augustins karrika 7. Emazteen Eskubideen Eguna dela eta, aurten ere inprobisaketa ring-a %100 femeninoa izanen da... edo kasik!

### **Indarkeria ekiditeko eta tratatzeko ekintzak**

IFJD-ek (Justizia eta Demokraziarako Institutu Frankofonoa) hainbat jarduera antolatzen ditu sexu-indarkeria eta genero-indarkeria tratatzeko eta prebenitzeko, bai eta erasotuei laguntza holistikoa emateko ere:

- **Martxoaren 11tik 14era** Mouvement des Enfants-en lankidetzarekin: lurraldeko hainbat tokitan «karabanak» antolaketa. Karabanak tailer parte-hartzaileak dira, biktimak, lekukoak, herritarrak, profesionalak, elkarteak eta intzesa duten pertsona guztiak elkartzeko parada ematen dutenak, sexu-indarkeriaren edo generoetan oinarritutako indarkeriaren biktimak babesteko eta erreparatzeko arrakastak edo zailtasunak identifikatzeko, bai eta indarkeria horiek prebenitzeko ere, baina baita gomendioak egiteko. Tailer hauek Baionan izanen dira martxoaren 14an, ostirala, Herriko Etxeko Saloi Handian, 10:00etatik 18:00etara.
- **Martxoaren 15a larunbata > Foro publikoa** Baionako Campus-ean, gomendioak aurkezteko parada ematen duena baina baita sentsibilizazio eta prebentzio denbora bat eratzeko ere.

**2026ko herriko hauteskundeak heldu ahala, Euskal Hirigune Elkargoak kanpaina handi bat abiarazten du «Eta zu bazina?», emazteak beren ahotsa tokiko politikan entzunarazteko. Baiona Hiriak Euskal Hirigune Elkargoak irudikatutako kanpaina koloretsu hau zabalduko du, Marianne itxurako pertsonaia bat irudikatzen duena, begirada ziurrarekin. «Emazteen arreta pizteko eta gehiago konprometitzera bultzatzeko begi-ententzia erakartzen duen kanpaina bat sortu nahi izan dugu. Hau erronka demokratikoa da!», hori dio Lehendakaria eta Baiona Hiriko auzapeza den Jean-René Etchegaray-ek.**